



hamaikabat

**Txosten**  
**POLITIKOA**

|   |           |
|---|-----------|
| <b>1. SARRERA: Zergatik Hamaikabat?</b> .....   | <b>3</b>  |
| 1.1. Testuingurua. Krisi hirukoitza.....  | 3         |
| 1.2. Nazio-tradizioa berriz interpretatu eta herrialdearen zuzendaritza berreskuratu.....   | 4         |
| 1.3. Zentzu kritikoa eta aurrea hartzeko politika.....  | 5         |
| 1.4. Apustu arriskutsua eta erantzukizun-jarduna.....   | 5         |
| 1.5. Hamaikabaten eremu politikoa.....  | 6         |
| <b>2. H1en nortasun-ezaugarriak</b> .....   | <b>7</b>  |
| <b>3. 1. Eginkizuna: Bultzada Nazionala</b> .....   | <b>9</b>  |
| 3.1. Krisia edo eguneratzea?.....   | 9         |
| 3.2. Abertzaletasunaren ekarpena .....  | 9         |
| 3.3. Euskadi autonomikoa .....  | 10        |
| 3.4. Bultzada nazionala garai berriari .....  | 13        |
| 3.5. Itun berri bat nazio gisa aurrera egiteko.....   | 15        |
| 3.6. Nafarroa itun zabalagoaren bidetik.....  | 17        |
| 3.7. Iparraldea bidegurutzean.....  | 18        |
| 3.8. Europa nazio garapenerako bide gisa.....   | 19        |
| <b>4. 2. Eginkizuna: euskal herrien arteko Bultzada Kooperatiboa, Euskal Herriak, bereizten dituzten eskumeneko hesien gainetik, (EAE, NFE, Iparraldeko Administrazioak).</b> ..... | <b>19</b> |
| 4.1. Lurraldearen inguruko euskal berezitasunak.....  | 19        |
| 4.2. Lurraldetasuna, bi ikusmolde.....  | 20        |
| 4.3 Euskal Nazioa eraiki al daiteke Euskal Herriaren egungo lurralde-egiturarekin? .....  | 23        |
| <b>5. 3. Eginkizuna: Bultzada Demokratikoa</b> .....  | <b>24</b> |
| 5.1 Hitzarmen sozialaren higadura. ....   | 24        |
| 5.2. Nazioa sortzea parte-hartzea sortzea da. ....  | 26        |
| 5.3. Parte-hartzearen aldeko apustuak alderdi irekia behar du.....  | 27        |
| 5.4. Politika instituzionala.....   | 28        |
| <b>6. 4. Eginkizuna: Gizarte Hitzarmen Berria</b> .....   | <b>29</b> |
| <b>7. ETaren indarkeria politikoa</b> .....   | <b>30</b> |

## 1. SARRERA: Zergatik Hamaikabat?

### 1.1. Testuingurua. Krisi hirukoitza

(1) Hamaikabaten sorrera, krisi hirukoitzaren eraginak batera pairatzen dituen une politikoan kokatu da. Lehenik, euskal abertzaletasunari eragiten dion krisia dugu eta berehalako ondorio gisa Eusko Jaurlaritza galdu izana. Hori dela eta, abertzaletasunaren ikuspuntutik gai nabarmenetan ziur aski gerta litekeen atzerapenaren aurrean gizarte-kezka garrantzitsua antzeman daiteke, gobernu berriaren lehen hilabeteetan baieztatua. Bigarrenik, bakea lortzeko eta terrorismoarekin amaitzeko gaitasun ezak ia kroniko bihurtu duen krisia dugu. Eta azkenik, izaera orokorreko krisia, gizarte-ziurgabetasun larriak ezaugarritutako aldia ireki duen mundu-mailako ekonomiaren erortzea.

(2) Hiru krisi horiek jarrera-hartze estrategikoa eta aukeratutako bide estrategikoarekin kontsekuente izango diren erabakiak eskatzen dituzte. Hamaikabat, hausnarketa-prozesu baten ondorio da, testuinguru problematiko horren aurrean euskal abertzaletasunaren sektore baten erantzun kritikoarena, testuinguru horrek, euskal gizartea, aurrez adierazi diren eta gatazkarako aukera izugarriak irekitzen dituzten hiru krisien inguruan birpolarizatzeko arriskua baitakar. Gure alderdiak garai estrategiko berri honetan eragiten digun problematika hirukoitzari aurre egiteko dauden bideek honako zereginei lehentasuna eman behar dietela uste dugu:

1. **(3) Abertzaletasunari eragiten dion krisiaren aurrean:**
  - euskal nazioaren ideia finkatu eta zabaldu, izaera integratzailea izango duen ekintza politikoaren bidez,
  - euskal herriari dagokion erabakitzeko eskubidearen tresnarekin,
    - naziotasunean atzerapena ematea eragotzi,
    - autogobernua aurrera pausuak emateko agertokia prestatu.
  
2. **(4) Indarkeria kroniko bihurtzearen aurrean:**
  - ekintza-unitate politikoa antolatu, euskal erakunde eta alderdiak protagonista izango dituen,

- indarkeriaren aurkako herri-inplikazio handia bultzatu, euskal herriaren borondate demokratikoaren gailentasunaren aitortza oinarri hartuta indarkeria-espiralaren aurrean.

### 3. (5) Krisi sozio-ekonomikoaren aurrean:

- krisia gainditu giza garapen iraunkorra oinarritzat hartuta,
- pertsonentzat aukerak sendotzeari eta horien arteko elkartasun-loturak nabarmentzeari begira jardun.

## **1.2. Nazio-tradizioa berriz interpretatu eta herrialdearen zuzendaritza berreskuratu.**

(6) Abertzaletasun historikoaren tradizioan kokatzen den jendea gara, nahiz eta aipatu tradizio hori berriz interpretatzea beharrezkoa dela uste duen ikuspuntu kritikoaren parte ere bagaren. Tradizioa berriz ulertzeak, modu eta mezuetan aldaketarako irekia izan eta bere agenda politika- eta gizarte-premia modernoetara moldatu behar du. Muinean jarraitzailea izango den abertzaletasuna, eta euskal herritarren artean nazio-ideia hedatzeko baliozko tresna eta erreferenteak bilatuko dituen.

(7) Abertzaletasun horrek, orainaren aurrean bere lekua modu zuhurrean bilatzeaz gain, aldi berean, etorkizun irekia sortzea bilatuko du, euskal herriarentzat existentzia-eta garapen-aukera onenak eskainiz.

(8) Hamaikabat abertzaletasun instituzionala aldarrikatzen duen alderdia da. Baina, aipatu behar da, erakunde-izaera hori ez dela herri-administrazioaren eremu itxira murrizten. Erakundeen alorrak, antolatutako gizartea biltzen du eta, halaber, administrazio eta gizartearen arteko harremana, elkarrekiko bizigarria, elkarrekintza eta parte-hartzea ere biltzen ditu. Gizarte zibila administrazioa bezain garrantzitsua da nazio bat modu integratzailean eraikitzeko garaian. Herrialdearen zuzendaritza berreskuratzeko bidea, gainera, gizarte-lotura hori berreskuratu edo nabarmentzean hasi eta gizartea gai publikoetan inplikatzera itzultzeko ahaleginarekin eta horren nazio-izaera indartzearekin jarraitzen du.

### **1.3. Zentzu kritikoa eta aurea hartzeko politika.**

(9) Ibilbide politiko, sozial eta erakunde-mailakoa dugu, tokikoa, herrialde- zein nazio-mailakoa eta bide horretan, esperientzia praktiko garrantzitsua erakutsi dugu lehen aipatutako zentzu kritikoak berak gidatuta.

(10) Esperientzia horrek dogmatismoa ekiditen erakustez gain, errealitate politikoa sinplifikatzen duen idealismoa, praktikan, hain zuzen ere lortu nahi dena, hau da, nazioaren aurrera egitea, eragozten duten oztopoak sortzen amaitzen duen idealismo hutsaz ez fidatzea erakutsi digu.

(11) Gure asmoa gauzen egoera aldatzea da, ez gauzen egoerara moldatzea. Pertsonen, pertsona aktiboen, ekintzak eta erabakiak dira aldaketak sortzen dituztenak. Ekintza politikoa ez da itxarongela bat. Ezta bat-bateko jarduna ere. Gure politika, aurea hartzen saiatuko da, ekimena izaten, aukerak sortzen, gertaerak eragiten, gauzak beren kabuz gertatzea itxaron aurretik, eta beste batzuk egingo dituzten gauzen aurrean erantzutearekin konformatu gabe. Apurka-apurka eraldatu nahi dugun errealitatearen inguruko geure ideia eta ebaluazioa ditugu. Egiazki, ideia eta ebaluazio horiek, gure alderdiak bere gain hartuko dituen jarduera, ekimen eta konpromisoetan eragina dute eta izango dute.

### **1.4. Apustu arriskutsua eta erantzukizun-jarduna**

(12) Hamaikabat ez da, preseski, berritasun politikoa. Gure diskurtsoaren oinarritzko profila paisaia politikoan identifikagarria da, gutxienez duela hamarkada batetik hona. Denbora horretan, adierazpen publiko esanguratsua izan du bere ohiko bozeramaileen bidez edo hainbat erakundetako herri-ordezkarien eta agintarien eskutik. Eta denbora horretan, gainera, gurea herrialdeko aniztasun politikoaren adierazpen desberdinu gisa hartu izan da.

(13) Sistema politikoaren kalitateari dagokion ikuspuntutik, indarrean dagoen eredu demokratikoa alderdi-sistema izanik, alderdi bat sortzea bide demokratikoa zabaltzeko modu gisa ikusi behar da, parte-hartze politikoak eskaintzen dituen bideen dibertsifikazio eta euskal aniztasunaren errealitatearekin (*Hamaika*) bat datorren adierazpen gisa.

(14) Zer eskaintzen du Hamaikabatek une honetan bertan gure herrialdean dagoen indar politikoen korrelazioan? Abertzaletasuna indartzeko jaiogara. Suspergarri kritikoa izan nahi dugu, abertzaletasunaren ikuspuntu berria dinamizatzeko asmoarekin, nahiz eta eguneroko jardunean indar abertzaleen arteko lankidetzaren estrategikoaren printzipioa (*Bat*) aplikatzeko asmoa ere badugun. Harreman kritiko hori, akordio programatiko sendoen bidez bideratua, euskal abertzaletasunak, etorkizun hurbilaren aurrean, behar duen berreskuratze- eta garapen-faktore garrantzitsua izan daiteke.

### **1.5. Hamaikabaten eremu politikoa.**

(15) Oraingoan, Hamaikabatek jada badu bere eremu politikoa. Geure diskurtsoa eta eragin politikoa dugu. Gure jendeak bere presentzia aktiboarekin eta lurralde- eta toki-erakundeetan egin duen jardueraren eraginkorrarekin irabazi du, bai eta herrialde osoan duen gizarte-atxikipenaren bidez ere.

(16) Etorkizun hurbilenean, gizarte- eta nazio-gaietan gure ekarpenak eginez eta amaierarik gabeko antagonismotan betikotzea bilatzen duten estrategiei alternatiba sortuz izango dugu gure eremu politikoa. Proiektu abertzalea indartzeak, gure herrialdeak bizi dituen kultura-, gizarte- eta politika-baldintza berriak kontuan hartuz, eragingarri kritikoa behar du.

(17) Politika ez da hauteskunde-mugimendua, begia berehalakotasunean jartzen duen mugimendua soilik. Haatik, euskal politika "argazki finkoa" izateari uzten ari zaion unean jaiogara gu, hau da, hamarkadatan zehar mantendu izan duen hauteskunde-irudi mugiezinetik urruntzen ari denean. Eremu abertzalearen alderdi desberdinetan, beren muinetik urrutien dauden geruzak higitzen doazen pixkanakako zantzuak daude. Gizarte-mailan mugimenduak daude, euskal gizartean finkatutzat hartzen ziren ereduak desegiten ari diren gibeletako korranteak. Gizarte hori geroz eta likidoagoa da bere leialtasunetan, geroz eta zaharragoa eta egokituagoa, ardatz ideologiko-politiko klasikoekin lotura gutxiago du eta aniztasun lehiakorragoaren markoan moldatzen da.

(18) Hamaikabaten hautes-eremua "nazioa integrazio gisa" ikuspuntuaren eremua da, baina baita, abertzaletasunak politikari egiten zaizkion eskaera berriei era egokian erantzuten jakin ez duelako desengainatuta urrundu diren hautesleena ere. Bereziki,

politika eta gizartearen arteko elkarrekintza areagotzeko nahiarekin lotutako eskariak, aintzat hartzearen eskakizunekiko politika harberagoaren eskariak, gure bizitzan geroz eta dimentsio gehiago eragiten dituen mundializazio-dinamika boteretsuaren aurrean tokiko aukerak, bereziki, elkartasuna eta gizarteratzea, eraginkorki kudeatuko dituen politikaren eskariak. Hamaikabaten helburua, euskal politika astindu, zuzendu eta birbideratzea da, onuraduna euskal komunitatea eta osatzen duten pertsonak izan daitezen.

## 2. H1en nortasun-ezaugarriak

(19) Hamaikabatek, XXI. mendeko alderdi abertzale gisa definitzen du bere burua, abertzaletasun historikoaren jarraitzaile moduan aldarrikatzen duena, jada duela mende bat baino gehiago martxan dagona. Hamaikabatek, mugimendu politiko honen erakunde-esperientzia emankorra bere egiten du, bere lidergoaren altzoan euskaldunon historia modernoaren orrialde emankorrenak idatzi baitira, Agirre lehendakariaren errepublika-garaitik gaur egun arte. Hamaikabatek, erreferentzia horiekin bat eginez, euskal herria, euskal komunitate nazionala, Europan hala ordezkatua izatea du xede, Europako gainerako Estatuetik berdintasun-mailan, eta gure herriari inork ezingo diola bere borondatearen aurka gizarte- eta politika-proiektu bat ezarri sostengatzen du.

(20) **Abertzaletasun integratzailea.** Hamaikabatek pertsonen zerbitzura dagoen nazio-ideiaren integrazio eta hedapen hobia bilatzen du. Pertsona askeak aberri askean. "Nazio osoaren" ideian sinesten dugu, zabal daitekeen izaera duen nazioan, modu horizontalean zabaltzea bilatzen duena, egunero, prozesu historiko gisa belaunaldi berriekin pixkanaka garatzen den nazio gisa integratutako eta identifikatutako euskaldun gehiago izango dituen nazioa. Abertzaleen lana soilik izango ez den nazioa eta jarrera frentistarik gabe, gizartearen bide nagusitik soilik burutu ahal izango dena.

(21) **Euskal Abertzaletasunik gabe ez, baina ez Euskal Abertzaletasunarekin soilik!** Hamaikabat jakitun da nazio-ideia hori bultzatzeak, era berean, aliantza eta aldaketarako, konplizitatea sortzeko eta herri-mobilizaziorako ahalmen handiko abertzaletasuna eskatzen duela.

(22) **Erakundeen lidergoa abertzaletasunarentzat berreskuratzea.** Hamaikabat, testuinguru horretan, erakundeetako abertzaletasuna euskaldunen gehiengoa parte-hartzaile senti daitekeen nazio-eraikuntzaren lidergo-lekuan berriz kokatzeko ekintza-unitate estrategikoaren alde dago.

(23) **Sistema demokratikoa gizarte-inplikazio sakonagorantz berbideratu.** Hamaikabatek erradikalki demokrata den alderdi gisa aurkezten du bere burua, erradikaltasun hori, parte-hartzearen metodoetan sakonduz, herritarren eta erakundeen identifikazio handiagoa lortzearen aldeko etengabeko inplikazio gisa ulertuta.

(24) Hamaikabatek, horrexegatik, gure erakunde-sistemarentzat bultzada demokratiko berria defendatzen du, sistema horretan higadura-zantzu larriak antzematen baitira. Bultzada horrek parte-hartze bideak zabaltzea eta sistemaren "ad intra" erreforma ekarri behar ditu erakundeen eta herritarren arteko lotura arinagoaren bila.

(25) **Sozialdemokrazia modernoa eta birsortzailea.** Alor sozio-ekonomikoan, sozialdemokrazia modernoaren alde egiten dugu, aukera-berdintasunaren arauarekiko lotura oinarritzat hartuta; beharrezko baliabide publiko eta sozialak optimizatzeko erronkari aurre egin behar baitzaio, giza garapeneko benetako marko batean, herritar guztiei ongizate-estaldura nahikoa zabaltzeko.

(26) **Kudeaketa publiko iraunkor, parte-hartzaile eta solidarioaren eredua.** Alor horretan bertan, Hamaikabatek, ekitatea, justizia soziala eta elkartasuna oinarri izango dituen kudeaketa-eredu baten alde egiten du, pertsonak ardatz hartuta eta gizarte- eta ekonomia-sistemaren mailakako eraldaketa bilatuko duena izaera iraunkor, parte-hartzaile eta solidarioa izango duen eredu berrirantz.

(27) **Enpresa demokratizatzeko ereduen bultzada.** Enpresan Lana eta Kapitalaren integrazio handiagorantz. Langilearen inplikazio handiagoa enpresaren orainean eta etorkizunean, eta enpresa bakoitzaren inplikazio handiagoa Iraunkortasunean eta Gizarteak ematen dizkion mozkinen zati bat Gizarteari berari itzultzen.

## 3. 1. Eginkizuna: Bultzada Nazionala

### 3.1. Krisia edo eguneratzea?

(28) Euskal abertzaletasunaren krisia ohiko leku bihurtu da. Politikatik, komunikabideetatik edo pentsamendutik, euskal abertzaletasunaren krisia azaldu, eztabaidatu eta horren inguruan hausnartzen da.

(29) Arintasun gehiegiz adierazten da abertzaletasunaren krisia mugimendu horrek Gobernu galduta izan dela eta, iritzi emaile bakoitzaren joera eta nahien arabera, berreskurapena zein, batzuen nahiak betez, gainbehera saihestezina iragartzen dute.

(30) Egia da, gure ustez, euskal abertzaletasuna, mugimendu politiko gisa, egoera kritikoa dagoela, baina mundu osoan gizarte-aldaketa sakon eta azkarraren testuinguruan ulertu behar da, egoerak bere asmoak, desira eta estrategiak, baliabide eta helburuak, bizi den eta zerbitzatzen duen gizartera eta ingurune berrira moldatu behar baititu.

### 3.2. Abertzaletasunaren ekarpena

(31) Egia ere bada inspirazio humanistako euskal abertzaletasunak, zeinari egiten diogun erreferentzia eta zeinaren zati sentitzen garen, mende luzean zehar izan duen existentzia eta jarduerak lorpen aipagarriak eskuratu eta egiazko porrotak ere izan dituela.

(32) Abertzaletasunaren arrakasta da euskal herriak gizarte bereizi gisa jarraitzea Espainiak bere nazio-erakuntza hasi, nazio moderno gisa eratu eta berrehun urte ondoren. Haatik, partzialki soilik lortu du. Urtetako autogobernu-erakundearen galera, izaera zibil handia izan zuten hiru gerra, industrializazio eta gizarte-aldaketa izugarria eta errepresio-aldi luzea gainditu beharra izan badu ere, bere nortasun-ezaugarriak mantentzea lortzea, ez bairik gabe, bere osotasunean euskal gizartearen meritua da, bere barne-indar eta bizirik jarraitzeko borondatearena, baina abertzaletasuna, hein handi batean, borondate horren arima izan da, bizirik jarraitze horren inspirazioa.

(33) Euskal Herriak, herri gisa, bizirik dirau, baina Euskadik, nazio gisa, oraindik ez du onarpen eztabaidaezina lortu.

### **3.3. Euskadi autonomikoa**

(34) Duela hogeita hamar urte, Franco hil zenean, egoera politikoaren hauskortasun eta labilitateak baldintzatutako abagune hartan, garai errepublikarrean, Agirre *lehendakariaren* hitzetan, "probintziatik Herrialdera" pasatzea lortu zuen estrategia berri eta eguneratzea erabaki zuen abertzaletasunak: sozialismoarekin akordioa eta erregimen autonomiko nahikoa berehala lortzea, baina hori lortuta ere, euskal herria bere etorkizuneko prozesuaren protagonista izateko eskubideari kalterik egin gabe.

(35) Une horretan, herrialdea eraikitzeko premiazko tresnen aldeko apustua egiteko unean, gaur egun ezagutzen dugun abertzaletasunaren abiatzearen unea eta bere ikuspegi eta nahia adierazten duena, gure gizarteko gainerako ikuspuntu eta utopien aurrean: eskuinaren immobilista edo erreakzionarioa, setakeriaz aurrerapen ororen aurka aritu dena, eta iraultzailea, sufrimendu eta gorrotozko lorratzarekin gure gizartean bermatu zena eta oraindik bermatzen ari dena.

(36) Abertzaletasunak, beraz, estatutuaren bidea sozialismoarekin batera hasi zuen, eskuin eta ezker erradikalaren aurrez aurre, eta Autonomia Estatutuaren lorpenarekin amaitu zen EAEn, barne-elkarbizitzaren, euskal gizartearen, eta kanpokoarekiko, Estatuarekiko elkarbizitzaren inguruko ituna. Orduan eratu zen historiako lehen euskal Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza berrezarri, gure herriaren gizarte-gehiengo baten eskumenarekin.

(37) Itunari jarraiki, euskal herria eta bere naziotasuna (hau da, bere izaera nazionala), indarrean zegoen ordenamenduak onartutako kategoria politiko bihurtu ziren eta Euskadi eta Estatuaren arteko harreman ekonomiko-finantzarioak erregulatzeko, bere kultura- eta hezkuntza-garapena bultzatzeko ahalmena errotu zen euskal erakundeetan, euskal gizartearen berezitasunarekin bat etorri. Euskal herri subjektuaren onarpenarekin, eskubide historikoen gaurkotze osorako erreserba esplizitua ezarri zen. Erreserba horrek berau gauzatzeko aukerari egiten dio erreferentzia, gutxieneko izango litzatekeen moduan bere erabakitze demokratikoaren erabilera eginez.

(38) Estatutu-bide hori Hegoalde osorako pentsatu zen eta Nafarroa atzean geratu zen frankista ondoko eskuinaren hautes-indarra zela eta Nafarroa Estatu-gai gisa hartu eta sozialistek ikuspuntu horrekin bat egin zutela eta. Hegoalde osorako estatutu-bide hura lege-testuetan ere islatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoak (NFE), bakoitzak bere ordenamenduan, autonomia komuna osatzeko mekanismoak biltzen dituzte, bi erkidegoetako herritarrek hala berresten badute.

(39) Nafarroako prozesu politiko-instituzionala, bere sortze eta gauzatzean eskuin hori lidergoan duela, PSOEk lagundua eta foru-erakundeetan dagoen Nafarroako euskaltzaletasunaren bazterketa sistematikoarekin, Foru Amejoramendua deituriko Nafarroako Estatutura iritsi zen.

(40) Hogeita hamar urteotan, abertzaletasunak EAeko autogobernuaren erakundeak martxan jarri eta beren garapena gidatu du, geroz eta murriztailegoa izan den testuinguruan (LOAPA, Erkidegoetako Itunak, etab.) eta ETAren jardura terroristaren ekimen deslegitimatzaile eta geroz eta polarizatzailegoaren presiopean.

(41) Estatuari dagokionez, modu mailakatu eta geldiezinean, euskal autonomiaren ahalmena mugatzeko beharraren eta bere berezitasuna lausotzearen ideia ezarri da, lege homogeneizatzaileen, epai murriztaileen eta iritzi-egoera egokiak sortzearen bidez. Hala ere, euskaldun gehienek gaur egun, EAEn, autogobernu-maila zabala dute eta, aldi berean, ekonomia eta ongizatearen garapen-maila altua, bai eta Europako gizarte garatuenekin aldera litekeen gizarte-kohesio maila ere. Nolanahi ere, euskal gizartearen zati handienak uste du Estatuak ez duela Autonomia Estatuaren itun politikoa bete, horren ahalmen politiko eta sinbolikoak moztu direla eta esperantzari iruzur egin zaiola.

(42) Bederatzi legegintzaldi hauetan zehar, EAEn, abertzaletasunaren hautes-nagusitasuna higitzen aritu da, hiriguneetan hasiz, eta zailtasun erreala izan da Nafarroan lortutako hautes-sapaia puskatzeko NaBai azaldu arte. Hori guztia, 1986ko zatiketa edo 1998ko Lizarrako akordioa bezalako gertaera ezagunagoen ondorio baino, hain esplizituak ez diren hondoko prozesu batzuen ondorio izan da, gizarte-arloan egon diren dinamika eta eraldaketekiko urruntzea eta ez moldatzea, hain zuzen ere.

(43) Bestalde, abertzaletasunaren krisian funtsezko elementu dugu autogobernuarekiko desengainua, ez baita alferrikakoa izan aipatu autogobernua leitmotiv eta ekintza politikoaren xede bihurtu izana. Desengainu horretan hiru prozesuk lagundu dute:

- autonomiaren aldebakarreko balio-gutxitze politiko eta sinbolikoa,
- ETAREN existentzia berak eta sortu duen polarizazioak eragindako neke eta gogaitasuna eta,
- abertzaletasunak Gobernuan izan duen etengabeko presentziak eta gizarteratzeko duen ahalmenaren murrizketak ekarri duen higadura.

(44) Euskal abertzaletasunak, bakea eta euskaldunon autogobernua lortzeko konpromiso sendoa izanda, urte hauetan ez du amore eman Estatuaren eta euskal herritarren arteko itun gisa Autonomia Estatutua betetzeko exijentzian eta bake- eta normalizazio-prozesurako akordio zabala bilatzearen jardunean, Akordio horrek, euskal herritarrek berretsiko balute, 1979ko Autonomia Estatutuaren itun politikoaren borondatea berriro beharko luke.

(45) Eusko Legebiltzarrean, borondate-akordio baten eta elkar onartzearen oinarriaren gainean, Estatutua berritzeko onartutako proposamenei Estatuak emandako ezezko zuzenak, mugagabea izan ezin duen baina, hala ere, gizarte-normalizazio eta -integrazioaren eta garapen ekonomikoaren ikuspuntutik gaitza den blokeo batera bideratu du euskal gizartea.

(46) Euskal abertzaletasunak, gaur egun, euskal gizartearekin artikulatzeko zailtasunak ageri ditu. Fideltasun-eremu oso zabala badu ere, hiriko herritarrak eta gazteak integratzeko ezgaitasun erlatiboa du. Ezgaitasun horrek gizarte zibilak nazio-erakuntzaren proiektuan egin dezakeen ekarpena oztopatzen du. Euskadin behin betikoz finkatzeko, ez soilik politikoki, baita bereziki kulturalki ere, espainiar abertzaletasunaren eraso orokortuaren unean, gure lehentasunetan, gure hautesmailen pixkanakako narriatzeari irtenbidea bilatzeaz gain, euskal nazioaren eraikuntza-prozesuaren bideragarritasuna euskal gizartearen inplikazio aktiboak baldintzatzen duela aitortu behar dugu, euskal gizartea nazio-nortasunaren eramaile eta euskal nazioaren aldeko ekintza kolektiboaren sustatzaile gisa ulertuta.

(47) Urte hauetan zehar egin den politika abertzalea akidura-zantzuak adierazten ari da. Eraikuntza nazionala, herritarrak nazio-izatera atxikitzea, baratua dago. Gaur egungo autogobernuan sakontzea eta baita bere horretan mantentzea ere, arriskuan dago. Aldi berean, globalizazio-prozesuaren azkartzeak eta lanaren nazioarteko zatiketaren birdoitzeak, gure Herrialdeko eragile politiko eta sozialak kontzeptu eta estrategiak birpentsatzera derrigortzen dituzte. Horri ekarpena egin nahi dio Hamaikabatek, proposamen, eztabaida eta parte-hartzearen bidez.

### **3.4. Bultzada nazionala garai berriari**

(48) **Euskal gizartea gizarte desberdina da.** Hainbat mailatan baina beti modu antzemangarrian, gure Herrialdeak eremu sozio-politiko eta instituzionala osatzen du eta bertan, eragileak aintzat hartu eta singular aldarrikatzen dira. Euskal gizarteak, bere inguruan argitasunez islatzen duen auto-onartze eta auto-identifikaziorako nolabaiteko maila du. Gizarte antolatua, erakunde-egitura, ekoizpen-egitura, zerbitzu publikoen eredia, hezkuntza- eta osasun-sistemak, komunikabideak, aurrekontu- eta zerga-politika, ikerketa eta garapenean inbertsioa, horien guztien gainean gure gizarteak du kontrola, gutxienez kontrol erlatiboa.

(49) **EAEko gizartea anitza da.** Gertuko, eta ez hain gertuko, historiaren ondorioz, euskal gizarteak aniztasuna onartu eta bere egin du ezaugarri definitzaile gisa. Hizkuntza-, ideologia-, nortasun- eta erlijio-aniztasuna, eskubide- eta aukera-berdintasunaren eskakizun sendoak zeharkatuta.

(50) **Euskal Herria gizarte irekia da.** Mendetan zehar emigrazio-herria izan ostean, gure Herriak, lehenik industrializazioak, eta globalizazioak ondoren, garai hartan inguruko lurraldeetatik, eta urrunagotik orain, emigrante-multzo handiak ekarri dituztela ikusi du, etorkizunean orain baino gehiago, bere nortasun-ezaugarrietako bat izango den gizarte ireki eta plural gisa duen izaera sakontzen lagunduz. Euskadi, gizarte solidarioa ere bada eta herritarrak Hegoaldeko herrien garapen eta justiziarekin, bakearekin eta garapen iraunkorarekin konpromisoa dute.

(51) Ezin uka daiteke euskal gizarteak oraindik lurralde-, gizarte-, kultura- eta hizkuntza-integrazio eta -kohesioan gabeziak dituela eta gabezia horiek gaintitzea euskal gizartearen eraikuntzan lehen eginkizun garrantzitsua dela. Azken urteotako esperientziaren ostean, herritarrek gure Herriko elementu garrantzitsuak (zabalera

historikoa, bere izendapena bera, etab.) komun eta nazional gisa ikusi beharrean, alderdikoi edo abertzale gisa zergatik hartzen dituzten pentsatu beharko genuke. Hori abertzaletasunaren porrota eta politika abertzalea berriro eta eguneratzeko beharraren adierazle da.

(52) Politika abertzaleak, ulertzen dugun moduan, ez luke lurralde jakin batean estatus juridiko jakin baten aldarrikapena soilik edo nagusiki izan behar. Abertzaleon zeregina, funtsean, euskal nazioaren gizarte-eraikuntza litzateke, nazio-izatera geroz eta herritar gehiago erakartzea eta Euskadi geroz eta nazioagoa izatea lortzea; ez litzateke ulertu behar abertzaleak gehiago garelako eta erreferendum jakin bat irabaz dezakegulako, guztiok, edo herritarren gehiengo zabalak, gizartearen osotasunak, balio berak, parteizate bera eta etorkizun bera partekatzea baita xedea. Eta guztiok elkarrekin, beraz, nahi dugun egituraketa juridikoa lortzea.

(53) Demokrazia euskal gizartearen substantzia berekoa da. Hala izan da historikoki eta hala uste dugu izan behar duela etorkizunean. Herri-borondatean oinarritutako erakundeak, eta herri-erakundeak babestu eta garatzen dituen herri-borondatea, euskal gizartearen eraikuntzan oinarri diren binomioa dira. Ituna, akordioa eta hitza aurrerapen eta aldaketarako tresna gisa erabiliz. Ituna politikaren funtsezko tresna dela uste dugu.

(54) Euskal gizarte aske eta demokratikoa nahi dugu, garatua eta oparoa, berdintasun eta elkartasunaren alde egingo duena, kulturaduna eta eleanitza, irekia eta kosmopolita. Eta baita bere buruaren jabe ere, European integratua eta munduko herriekin solidarioa.

(55) Ez dugu uste aipatu nahi horiek kontrajarriak direnik, ez eta desira bektore bakar batera mugatu behar denik ere; aitzitik, gizarte justu eta askeagoa eta ekonomia sendoagoak eta iraunkorrakoak diren oinarrietan ereikitakoa, bere etorkizuna aske erabakitzeko baldintzak direnaren uste sendoa dugu eta, aldi berean, autogobernu indartsuena mundu globalizatuan beste ekonomia batzuekin lankidetzan aritu eta lehiatzeko ezinbesteko tresna dela.

### **3.5. Itun berri bat nazio gisa aurrera egiteko.**

(56) 1979ko Autonomia Estatutuaren itun politikoa iruzurtu da, euskal autogobernuaren erregimen-berezitasuna bideratuko luketen konstituzio-tresnak baztertu ditu Estatuak eta euskal subjektu politikoa onartzea ere ukatu da, 2004ko Eusko Legebiltzarraren proposamenak eztabaidatu edo gutxienez entzuteari emandako ezezkoak agerian utzi bezala.

(57) Euskal Herria, beraz, subjektu politikoa da, baita modu bereizian ere. Bere gizarte, ekonomia- eta erakunde-errealitatearen oinarriaren gainean, Euskal Herria subjektu politikoa da, bere egitura edo lurralde zabalera edo estatus juridikoa edozein dela ere. Eta hala da subjektu gisa jokatzeko duelako eta beste subjektu politiko batzuk hala onartzen dutelako. Euskal Herria ezin da bereizten ez den elementutzat hartu, eta are gutxiago besteren mendeko zatitzat. Konstituzioko definizioak berak euskal herriari eta oinarrian dituen foru-lurraldeei Konstituzio espainiarra baino lehenagoko nortasun publikoa ematen die eta aldi berean lehenagokoak diren eskubideak aitortzen dizkie.

(58) Euskadi nazio-proiektua da, duela ehun eta berrogeita hamar urte baino lehenagotik edozein euskal lurraldetako herritarren atxikipen aske eta borondatezkoaren oinarrian eraikitzen den nazioa, eta Europan giza garapen osatuaren oinarritzko marko gisa ulertua, elkarbizitza eta elkartasuna jorratzen dituen eremu gisa eta ekonomia iraunkor eta lehiakorra eraikitzeko gune gisa. Euskadi, beraz, euskaldunon aberria da.

(59) Etengabe globalizatu den munduan eta gero eta integratuagoa dagoen Europan, Estatu-kide tradizionalak subiranotasuna partekatuz, subiranotasunaren ikusmolde eguneratua elkar lotuta dauden erabakitze-guneen oinarrian eraiki behar da. Euskaldunon Herria horietako bat da. Euskadiren nazio-proiektuak, anakronikoa izan ez dadin, euskal herritarren ahotsa entzunaraztea izan behar du xede, erabakian parte-hartzea eta ez objektu izatea eta herri- eta gizarte-borondatea legitimotasunaren iturri erabakigarria izatea.

(60) Euskadiren eraikuntza nazio gisa eta euskal gizartearen eraikuntza bera, beren etorkizuna erabakitzeko euskal herritarren gehiengoaren akordio zabalik gabe gauzatu ezin denaren uste sendoa dugu. Estatuarekin normalizazio politikoa ekarriko duen

akordioa lortzeko baldintza ere bada.

(61) Euskal gizartearen baitan, lerrokadura identitarioa ezarri da, joera frentistakoa, PP-PSE itun soberanistari eta ENAMa antolatu nahi duen kontrako joerako mugimenduari esker. Horrek guztiak, desberdinen arteko elkarriketa eta akordioa zaildu eta, beraz, normalizazio politikoa atzeratzen du. Hala ere, itun politiko berriak beharrezkoa izaten jarraitzen du, bai barnekoa, euskal gizartearen baitan, bai euskal herriaren eta Estatuaren artean ere. Autogobernua euskaldunon egungo beharretara moldatuko duen eta normalizaziorako bidean herri-bultzadaren etapa berria sortuko duen itun berria.

(62) Edozein akordioaren gakoa, ordea, beharrezko den gizarte- eta politika-konfiantza eta akordiorako borondate politikoa bilatzean datza, hala, euskal subjektu politikoaren erabakitze askatasuna gauzatu ahal izateko. Agertoki berri horretan, konfiantza eta borondate politiko nahikoa berreskuratuta, euskal herriak, bereak, estatu-mailakoak eta nazioartekoak diren ordenamenduaren kategoria eta tresna guztiak erabili ahal izango ditu itun politiko berriari beharrezko birtualtasun praktikoa eta sinbolikoa emateko.

(63) Hamaikabatek, herri-borondatearekiko leialtasuna politikaren ikusmolde mailakatu, integratzaile eta eraikitzailearekin batu behar dela uste du. Horrexegatik bereziki, bide zabaleko euskal nazio irekiaren ideien alde egiten dugun apustua, bere esanahiari gertu duen erakunde-esperientziaren kultura politikoa gehituta. Horregatik ez ditugu transakzio eta konpromisoari itxitako proiektu eskuraezinak proposatzen, gure proposamena, hain zuzen, dogma frentistak albo batera uztea eta estrategia malguak lantzea baita. Hortik dator, halaber, garapen nazionalaren aurrera pausuek lur sendo, finkatu eta atzera pausurako arriskurik gabearen gainean egin behar direla ulertzea.

(64) Hamaikabaten berehalako lehenetsun estrategikoa, autogobernuan atzera egitea eragoztetik, horrek 1979tik aurrera euskal erakundeak berreraikitze aukera eskaini zuen ituna are gehiago higituko bailuke, eta Estatuaren eduki osoa leial betetzea sustatzetik pasa behar da. Orain da, gainera, itun politiko berri bat gauzatzeko ibili beharreko bidea zedarrizteko garaia. Babes politiko eta sozial zabala izango duen plataforma prestatzeko unea da, erakundeak, nazio-normalizazioko etorkizunera eramango gaituen gizarte- eta politika-akordioa egitera bultzatuko dituen.

(65) Hamaikabaten ustetan, gizarte- eta politika-akordio horren gutxieneko edukiak honakoak behar lukete:

- Euskal herriaren erabakitzeko askatasunaren baieztapena.
- Itunaren gaineko aldebiko berme-sistema ezartzea.
- Autogobernuak lan-gaietan eta gizarte-zerbitzuetan duen ahalmenaren errematea.
- Botere judizial autonomo baten sorrera.
- Europako erakundeetan Euskal Erakundeen presentzia zuzena onartzea.
- Euskal Herrien arteko harreman-markoaren eguneratzea.

### **3.6. Nafarroa itun zabalagoaren bidetik**

(66) Autogobernuaren garapena EAEn abertzaletasunaren bultzadatik, Nafarroako erakundeetako kudeatzaileek -eskuina ala sozialistak izan- garaipen edo aldarrikapen horien zati handiena sistematikoki NFEren autogobernura pasatzeko balio izan du. Kudeatzaile horien jarrera Nafarroako autogobernuaren garapenean geldotasunak baldintzatu badu, nahiz eta "iparraldeko bizilagunen atzetik ez geratzea" bilatzen bazuten, indarrean zeuden konpetentzien garapenean parte-hartzeak eta falta zirenak aldarrikatzeko bidean lidergoa izateak baldintzatu du erakundeetako abertzaletasun eta euskaltzaletasunaren jarrera.

(67) Nafarroa Bairen sorrerak formulazio propioak ekarri ditu, Nafarroako herritarrak subjektu politiko oso gisa aldarrikatzen duen talde politiko bakar bihurtuz. Subjektu horrek, baldintzarik gabeko gaitasun eratzalea eta bere erregimen politikoa aske ezartzeko eskubidea ditu, bai eta berdinen arteko erakunde komunak sortzeko Estatu espainiarrarekin negoziazio-eskubidea ere. Hori da NaBaik "itun-zaletasun nagusi" edo jatorrizko eskubide gisa definitzen duena, "itun-zaletasun apalaren" edo Amejoramentuaren sustatzaile izandako txikira egindako negoziazioaren aurrean. Hamaikabatek Nafarroa Bairen formulazio horiek bere egin eta defendatzen ditu.

(68) Nafar gizartean, hizkuntza-, kultura-, gizarte-, ekonomia-, ideopolitika-, nortasun- eta erlijio-aniztasuna, eskuinak gobernaturiko erakundeetatik datorren aniztasun gabezi militantearekin batera aurki daitezke. Aniztasun gabezia hori castellanismo kultural baztertzailean eta Nafarroako gizartean ezbairik gabe pisua duten talde politiko

eta sindikalen erakunde-bazterketan barna pasatzen da. Bere erakunde-harremanen menpe dagoen gizarte zibil antolatuaren zati handi bati igorritako aniztasun gabezia. NaBairen bidez abertzaletasunak eta euskaltzaletasunak bilatzen duten aldaketa lortzeko, Nafarroako gizartearen aniztasun errealari erantzungo dioten erakunde pluralistak behar dira.

(69) Abertzale eta euskaltzale nafarrek badakite gainerako euskaldunen autogobernuari jarritako edozein oztopok, "itun-zaletasun apaletik" edo espainiar abertzaleen txikirako negoziazioaren bideak osatutako Nafarroaren ahalmen-mailan gelditzea dakarrela. Izan ere, bi euskal erkidegoek autonomia bera sortzeko berezitasuna aitortzen duen Konstituzioaren 4. Xedapen Gehigarriaren indargabetzea espainiar abertzaletasun gorenaren helburu politiko izatera pasa da. Nafarroan barne-ituna beharrezkoa bada aniztasuna-pluralismoa binomioa lortzeko, Estatuarekin ahalik eta autogobernu gehien lortzeari begirako itun berri bat ere beharrezko da. Horretarako, Amejoramentuaren erreforma "itun-zaletasun nagusiarekin" egitea eta aipatu erreforma onartuko luketen subjektu politiko gisako herritar nafarren onarpena beharko lirateke.

### **3.7. Iparraldea bidegurutzean**

(70) Onartu beharra dago azken urteetan zenbait urrats eman direla Iparraldean, alde batetik bertako hiritarren artean euskal nazioaren, euskal ekonomia sistema propioaren eta euskararen aldeko jarrerak piztuz, besteak beste, baina baita Hegoaldeko eta Iparraldeko gizartearen eta erakundearen arteko lankidetzaz bultzatuz. Horiek guztiak zantzu onak dira, inolako zalantzarik gabe.

Hala ere, ezin dugu ahaztu egoera erabat kezagarria dela ikuspuntu askotatik. Euskararen galera ez da gelditu, batez ere belaunaldien arteko transmisioan, erakunde propioen aldeko borroka ere badirudi indarra galdu duela neurri batean eta, hori guztia gutxi izango eta aspaldion Balladur jaunaren batzordeak iradokitako frantziar estatuaren birmoldapenak ere ez dio mesederik egingo erakunde propio horren aldeko aldarrikapenari, aipatutako birmoldapena justu kontrako helburuarekin egingo baita.

Hori guztia kontuan izanda, Hamaikabat-ek beharrezko ikusten du Iparraldean ere, bertako egoera kontuan hartuta euskal nazioa eraikitzeko martxan dauden hainbat ekimenekin jarraitzea. Euskal Herriko Laborantza Ganbera da horren adibideetako bat.

Azkenik, Iparraldeko zein Hegoaldeko erakundeen arteko lankidetzan sakontzea ere beharrezko helburua da. Jabetzen gara muga eta oztopo asko dituen lankidetzak dela, baina ukazina da urrats garrantzitsuak eman ahal izan direla lankidetzak honi esker Iparraldeko zein Hegoaldeko hiritar eta hainbat alorretako eragileak hurbiltzen.

**(3.8. Europa nazio garapenerako bide gisa: atal hau jardunaldi baten antolaketarekin garatzea erabakitzen da hurrengo hilabeteetan)**

## **4. 2. Eginkizuna: euskal herrien arteko Bultzada Kooperatiboa, Euskal Herriak, bereizten dituzten eskumeneko hesien gainetik, (EAE, NFE, Iparraldeko Administrazioak).**

### **4.1. Lurraldearen inguruko euskal berezitasunak.**

(71) Lurralde batean, gure kasuan bezala, nazio-errealitate edo -nahi desberdinak aldi berean ematen direnean, ezinbestekoa da desberdintasunak elkarbizitzari begira bideratzea, eta norgehiagokarako gune demokratikoekin konbinatutako gizarte osoaren alde jardungo diren politika eraikitzaileak aldi berean egoteko aukera eskainiko duen bide nagusia bultzatzea. Zaila da norbait bere sentimendu nazionalaren aldaketa buruan sartzeko, baina sentimendu desberdinak errespetatuko dituzten gizarte-proiektu osoei bai ekin diezaiekegula. Lurralde-mota horretan, sentimendu nazionalak berdintzeko saiakera frentismoetara doa, eta irabazle eta azpiratuen frustrazioarekin amaitzen da.

(72) Hemen legitimitate edo lehenagoko errealitate historikoen inguruko kontuetan sartu gabe, lurraldeari dagokionez Euskal Herriari berezitasuna ematen dioten zenbait ezaugarri adieraziko ditugu:

1. Euskal abertzaletasuna, bere lurralde osoan, hainbat bokazio nazional desberdinekin batera bizi da.
2. Euskal lurraldea Estatu frantses eta espainiarraren artean banatuta dago. Eta bi aldeetan, Estatu bakoitzaren sentimendu nazionalak euskal sentimendu nazionalarekin batera bizi dira.

3. Estatu espainiarraren barruan, bi errealitate autonomiko desberdindu ditugu (NFE eta EAE), Europako zenbait estatutako BPGaren portzentajeetatik gertu daudenak kudeatzen dituen autogobernu-ahalmenarekin. Estatu frantsesean, euskal lurraldeak, gutxieneko autogobernua ez izateaz gain, euskaldunak ez diren beste lurralde batzuk barne hartzen dituen administrazio-departamenduaren barruan daude. Gainera, Castilla y León erkidegoak Trebiño y Villaverde de Trucios barrutiak ditu, nun bertako biztaleak, Trebiñokoak bederen, behin baino gehiagotan adierazi duten Arabako parte izan nahi dutela. Borondate hau Castilla y León erkidegoak baztertu du ere behin eta berriro jarrera antidemokratikoa erakutsiz.
4. EAEn, egitura federala dago hiru lurraldeen artean, legebiltzarrean parekotasun osoarekin.
5. Nafarroan, euskal abertzaletasunarekin batera, espainiar abertzaletasunaren bi adierazpen zorrotzago aurki dezakegu: nafar-zaletasuna.
6. Gainera, ez gara Herrialde homogenea abertzaletasun baten edo besteren adierazpen hautes-politikoari dagokionez. Lurraldeka aztertuko bagenu, horietako bakoitzak gehiengo desberdinak ageri ditu. Baina lurralde bakoitzean barneratuko bagina, herri edo eskualdeka ere gehiengo desberdinak aurkituko genituzke.
7. Hala ere, euskaldunen arteko lotura historikoki ez da izan abertzaletasunaren xede eskusiboa. Aipatu lotura hori, zentralismoaren aurrean foru-erregimena defendatzeko, zein proiektu komunak gauzatzeko, foruzaleek eta ezkertiar euskaltzale-talde jakin batek, sozialistak barne, garai desberdinetan defendatu izan dute. Hain zuzen ere, gaur egun, argi ikus dezakegu abertzaletasun espainiarraren multzoa nola lerrokatu den euskaldunen arteko batasun horren aurka.

#### **4.2. Lurraldetasuna, bi ikusmolde.**

(73) Euskal errealitate sozio-politikoaren mapa hori ikusita, nazioaren eta lurraldetasunaren dimentsioen arteko harremanari ekiterakoan bi ikusmolde ditugu:

##### **4.2.1 Ikusmolde esentzialista.**

(74) Euskal lurraldearen izaera espainiar edo frantsesa utziezintzat hartzen duten abertzale espainiarrak eta frantsesak daude -beren bertsio desberdinetan. Jakobinismo frantsesa, canovismo espainiarra ("indarrak

Estatua eragiten du"), konstituzionalismoaren inguruan gaurkotu dira, zuzenbide gogorzale, oldarkor eta larderiatsuena erabiliz. Gehiengoak erabiltzen dituzte hizpide, gehiengo kualifikatuak edo gehiengoa duten adostasunak, mugatze hori burutzeko; baina, unea iritsita ere, konstituzionalismoaren ikuspuntu canovista ezartzen da. "Frentismoan" eta Estatu espainiarreko gainerako lekuetan ezinezko diren akordio politikoetan amaitzen duten jarrerak.

(75) Ikusmolde hori ez da indar demokratikoa soilik, indar totalitarioek erabiltzen duten eta garai desberdinetan, frankismoa barne, erabili izan duten ikusmoldea baita. Edozein euskaldun abertzalaren aldetik benetako erasotzat hartzen duen lurraldetasunaren ikusmoldea, eta kontrako joera duten adierazpen frentistetarako elikagai onena.

(76) "Estataltasun" adierazpen gisa euskal lurraldea utziezin eta ezinbestekotzat duten euskal abertzaleak daude, eraikuntza nazionalaren norako finalista bakar gisa. Gehiengo zehaztugabe bati egiten zaio erreferentzia, lurraldearen heterogeneotasunaren ginetik pasatzen da, aukera oro "aukera historikoaren" etorrerara mugatzen da, eta politika- edo erakunde-prozesu bakoitzean, bere ekintza guztiak "berehalako helburu finalista" lortzeari lotzen zaizkio. Mailaka jardutearena eta gizarte-identifikazioaren zabalpenaren bilaketa etengabe gaindituak izango dira erreferendum-motako formula finalistaren izenean.

(77) Ikusmolde hori ez da gehiengoaren legitimotasunean sinesten duten indar demokratikoa soilik. Gizarte-frustrazioaz elikatzen diren indar totalitarioek ere erabiltzen baitituzte. Indar horiek lurraldetasuna euskal izatearen ezeztapenaren adierazpen gisa erabiltzen dituzte estrategia anti-instituzionalen buru izateko. Lurraldetasunaren erabilera hori Bakea lortzearekin lotuta, ENAMari eta bere abangoardiari (ETAri) onura garrantzitsuak ekarri dizkie.

#### 4.2.2. Ikusmolde integratzailea.

(78) Agirre edo Irujoren abertzaletasun historikoaren formulazioak gaur egun dugun erakunde-errealitatearekin eta planeta osoan barna zabaltzen diren euskal komunitateen agertoki globalarekin elkartuz, euskaldunon lurraldea

euskaldun guztion erreferente fisikoa edo "kontinentea" dugu; dauden lekuan daudela eta hautatu duten nazio-nortasuna dutela ere. Hamaikabatek bat egiten duen ikusmolde integratzailearentzat, lurraldetasuna euskal aberria edo herria (Euskal Herria) osatzen duten belaunaldiak garatu behar diren leku gisa kudeatu beharreko zerbait da.

(79) Kontuan hartuz euskalduna hiru erakunde-errealitateetan dagoen abertzaletasun bakarra dela (EAE, NFE eta Iparralde), aberria egiteak "pertsona guztientzat autogobernua" lortzeko bidean buru izatea esan nahi du. Errealitatea egoskorra da eta autogobernu-maila altuagoa duten euskal lurraldearen zatiak bere inguruko lurraldeek baino kohesio sozial eta ongizate gehiago dutela egiaztatzen du. Ez dago abertzale espainiarrik autogobernua areagotzen buru izango denik, baina euskal abertzaletasunaren lidergoak lortutakoa ospatu eta ez du itzuliko.

(80) Estatu espainiarraren eremuan, Nafarroa euskal prozesu autonomikora ezin txertatzeak trantsizioko lehen urteetan abertzaleei sorrarazten zien estualdiak, Nafarroako eta EAeko euskaldunok ahalik eta "kohesio eta ongizaterako autogobernu-maila" altuena lortzea ekarri du, nahiz eta erkidego desberdinetan jarduten dugun.

(81) Ikusmolde hori NaBairen jatorrizko proiektuan islatu denean, gizarte-artikulaziorako maila (aberria egin) Nafarroako gizartean gauzatu egin da. Nafarroaren harremanak EAekin bi erkidegoetako euskaldunentzat elkarrenganako hobekuntzaren eta unitarismo espainiarraren aurrean beren berezitasunen elkarrekiko defentsaren gako eraikitzailean pentsatzeak, lau Aldundien arteko Konferentzia-erregimenaren tradizioa jasoz, pasa diren garaietako larritasuna gainditzeko, nafar-zaletasunaren euskalduntasunaren aurkako castellanismoa biluzteko eta frustraziotik bizi diren -eta horregatik hiltzen duten- eta lurraldearen euskaltzaletasuna hegemonizatzen saiatzen diren, argumenturik gabe uzteko aukera eskaintzen du. Zentzu horretan, Hamaikabatek Iruña eta Gasteizko Euskal Parlamentuek onartutako Nafarroa eta EAeren arteko Lankidetzarako Akordio Iraunkorra bezalako tresnak defendatzen ditu.

(82) Europaren markoan mugaz gaindiko harremanen areagotze erreal, bi aldeetako euskaldunoi elkarren arteko komunikazio eta informaziorako fluxu gehiago eskaintzen ari da. Iparralden geroz eta handiagoa den sentimendu nazionala garatzen duen prozesua, garapenerako euskaldunen arteko ikusmoldea sustatuz.

(83) Hamaikabatek euskaldunen arteko harremanak sakontzeko aukera garrantzitsuak ikusten ditu Europaren markoan. Gaur egun, Bidasoaz bi aldeetako (Erkidego autonomoko, Nafarroako eta Iparraldeko) instituzioen arteko lankidetzaren errealitate bat bilakatu da, muga zenaren inguruan bizi diren biztanleen eguneroko bizitza hobetzeko asmoz. Lehen bizkarrez bizkar bizi ginenak elkarri begiratzen hasi gara, mugikortasuna handitu da eta hegoaldeko euskaldunak iparraldean arrotz sentitzen ez garen bezela, berdin gertatzen zaie haiei.

Fluxu horiek, apurka apurka, Euskal Eurohiria eta Euskal Euroeskualdea sortzen dute. Horiek Europar Batasuna indartzen dute eta, Europa berri horrekin batera, Euskadi XXIgn mendeko nazio gisa eraikitze bidean daukagu.

### **4.3 Euskal Nazioa eraiki al daiteke Euskalerraren egungo lurralde-egiturarekin?**

(84) Euskadi, Euskal Herria, País Vasco edo Baskonia, zenbait aipatzearen, gure Lurraldea izendatzeko izen ohikoenak dira. "Izena duen guztiak izana du". Mendetan zehar, herri txiki honek bizirik dirau eta garatu egin da, herri gisa identifikatu da, nahiz eta XXI. mendean lurralde-aniztasun honekin sartu garen. Historian zehar, orain bezala, bere nortasun nazionalako euskaldunak (garai bakoitzean beren adierazpenen arabera) eta bokazio nazional espainiar edo frantseseko euskaldunak egon dira. Baina beti egon dira erasoak pairatu dituzten zenbait nortasun-ezaugarri defendatzeko bide nagusi komuna.

Bestalde, lurraldetasunaren irakurketa berezia erakutsiz, belaunaldiz belaunaldi herri txiki honek Diasporan komunitate handi bat sortua du. Bakismo kultural edo Basquitude (euskaldunidade) batean oinarritutako lurraldetasun identitatea izan da Iparraldeko euskaldunak garatu dutena eta Diasporara zabaldu dena, edozein herrialde delarik bertan daudenen jatorria. Ekonomi edo politika arazoak zirela eta atzerrira alde egin behar izan zutenei, gaur ekonomia globalizatu batean garatuko diren belaunaldi berriak gehitu zaizkie. Teknologi berriek eta komunikazio azkarrek

Diasporan topo egin duten belaunaldi zaharrak eta berriak elkarrekin aritzeko aukera eman die, etab aita ere hemen gaudenekin, beraien Basquitudea edo euskaldunitatea elkarrekin bizitzeko aukera. Beraien proposamenen eta ideien beharra dugu, eta era berean, Diasporako edozein euskaldun batek ere erreferentzi lokalaren beharra du, mundu globalizatu honetan “my home, mi casa, nire etxea” ezagutzeko. Hamaika batek instituzioetatik eta gizarte antolatutik ekimen estrategiko zehatzak bultzatuko ditu munduko edozein muturretan egon daiteken Basquitud edo Euskaldunidadearkin harremanetan jartzeko. Era honetan gauzatu ahal izango baita nazioa sareetan eraikitzea.

(85) Ez dezagun ahaztu pertsonak direla herriak osatzen dituztenak eta horiek direla, Agirren esan bezala, beren aberriaren eremuaren gainean gailentzen direnak. Abertzale integratzaileoi nazio-ideiaren hedapenaren buru izatea dagokigu (Hamaika eraikitzea) lurraldetasun anitz hau kudeatuz gure lurralde edo udalerritik bertatik. Guztion onuraren eta elkarrekiko laguntzaren bidez (Bat) nazioa eraikitzen arituko gara, estataltasunarekin edo gabe. Frentismo akigarririk gabe. Finalismoaren estutasunik gabe eta canovismoa eta jakobinismoa garaituz.

(86) Euskadi, Euskal Herria, País Vasco edo Baskonia euskaldunok eraikiko dugun herrialdea izango da, eta Hamaikabatek, abertzaletasun integratzailea era partekatuan nazio-proiektu horren buru izan dadin dihardu lanean.

### **5. 3. Eginkizuna: Bultzada Demokratikoa**

#### ***5.1 Hitzarmen sozialaren higadura.***

(87) Askotan gizartearen jatorria nagusiki politikoa dela ahazten dugu. Hori osatzen duten emakume eta gizonezkoek helburu politikoak lortzeko biltzen dira. Garapen pertsonalak guztien artean sortutako bizitza ereduak eskatzen ditu, helburu beretan oinarritutako harremanen gainean beste pertsonekin bizitzea. Horiek sortzen dituen hitzarmen sozialaren bidez, erakundeak gizaki-taldeek elkartzeko borondatearen eta horren ondorioz guztion ongizatearen alde kudeatzeko eta gobernatzeko behararen adierazpen zuzena dira.

(88) Gaur egun, hitzarmen sozialaren higadura nabarmena da. Gizartearen eta erakunde publikoen arteko identifikazioa, gobernatuen eta gobernarien artekoa, herritarren eta administrazio publikoaren artekoa, etengabe lausotzen ari da; maiz, harreman sozialak zalantzan jartzen dira eta guztien arteko gizabidezko kulturak urduritasuna sortzen du jokaera honek gure gizartearen bizitasun eta kohesioan sor dezakeen inpaktuagatik.

(89) Faktore horiek guztiek gizarte batek bere arazo politikoei aurre egiteko kalitate gehiago edo gutxiago duen jakitearekin lotura zuzena dute. Balioen oinarritzko ezagutzarik gabe, errespetatu beharreko eskubideez ala bere gain hartu beharreko betebeharez ari bagara ere, gizarte-kulturak ez luke gizarte-ordenaren eredurik izango. Harreman sozialak aintzat hartu gabe, elkartasuna praktikatzeko eta kohesio soziala balioesteko behar-beharrezkoa zaigun motibazioa galduko genuke eta hori elkartze politikoaren oinarria da. Gizartearen eta bere erakunde politikoaren artean integrazio indartsurik ez badago, azken horien lana beren zilegitasunaren jatorririk, hau da, gizartearen borondatek, pixkanaka aldentuko litzateke. Azken finean, egitura ahuleko gizartea duen eskualdea, kontrol demokratikorako kanpoko interesentzat orube erakargarria baino ez da.

(90) Gaur egungo gizartea, bestalde, konplexu eta dinamikoagoa bihurtu da. Azken hamarkadetan politika gizarte-aldaketara egokitzeko ezintasuna alderdien bakartzetik dator; proiektu politikoaren tentsio eraldatzaileari uko egitetik, beste eredu batzuen, epe luzerako ikuspegiaren edo ekimenarekin eta aurreikuspenarekin maneiatzen den lidergoaren eztabaida, berehalakoarengatik, funtsik gabeko erretorika edo inprobisazioarengatik ordeztu den borroka politikora moldatzetik dator.

(91) Alde kritiko horien guztien aurrean, Hamaikabatek gizarte-hitzarmena berritzearen alde egiten du, bereziki gizartearen eta erakundearen arteko harremanen gainbehera eragiten dituen tentsioak lasaitzeko asmoz. Gure alderdiak defendatzen duen erakunde-izaerak antolatutako gizartea, horrek administrazioarekin eta herritarrekin duen harremana, eta erakunde publikoen, gizarte zibilaren eta herritarren multzoaren arteko elkarreragina eta parte-hartzea erakundearen baitan ere egon behar direnaren ikuspuntua azaldu nahi du.

(92) Ikuspuntu horrek eraldatzeko konpromisoa esan nahi du, eta horri, elkarlanaren eta izaera politiko edo soziala eta publikoa edo pribatua duten beste eragileen eztabaidaren alorrean ekingo diogu. Alor jakin hori ardatz izango duen politika ekintza baten bidez.

- a. gizarte-aldaketaren joeraren eztabaidan eragile aktiboak izan nahi dugu eta horren ondoren datorren dinamikan ziurtasunez esku hartu nahi dugu,
- b. eta halaber, politika eta gizarteak beren arteko integrazioa hobetze eta helburu berdinei era eraginkorragoan heltze aldera beharrezkoak diren aldaketa instituzionalak bultzatu nahi ditugu.

## **5.2. Nazioa sortzea parte-hartzea sortzea da.**

(93) 1979 eta 1980 urteen artean, euskal erakundeek berreraikitze demokratikoa bizi izan zutenetik, salbuespenezko alor eta mobilizazio-momentuetatik at, euskal abertzaletasunak boterearen eta baliabide publikoen kudeaketari arreta gehiago jarri dio, kudeaketa horren eta gizarte-dinamika aurreratuenen arteko loturari baino. Aurreko atalean aurreratu dugun bezala, jokaera hori okerra izan zitekeen. Nahiz eta oraindik gizarteko segmentu zabal batek hauteskunde-leialtasun paregabea erakusten dion, euskal abertzaletasunak pixkanaka artikulazio politiko eta soziala galdu du eta, horren ondorioz, gizarte nazional baten sendotze-prozesuan bere ekarpena indargabetu egin da.

(94) Hala ere, gizarte zibila nazioa era integratzailean eraikitze oso esfera garrantzitsua da, erakundeak baino garrantzitsuagoa agian. Espazio eta momentu zehatzetako euskal gizartea da, eguneroko plebisituaren bidez, "euskal herriaren" haraindiko subjektuaren egoera historikoa aldarrikatzen duena, denboran bere jarraitutasunaren alde borrokatzen duena. Euskal gizartea da bere herritartasun propioa edo nazio-izaera beraren eramaile erreala. Juridiko-konstituzional erako formula baino, euskal gizartea bera da, bere erakunde eta praktika zibilak, guztion balioak, euskal aurrerapen nazionalaren benetako azken bermea.

(95) Euskal gizarte nazionala bultzatzeak hainbat dimentsio biltzen dituen esfortzua eskatzen du. Dimentsio horietako bat soziala dela argi dago. Bere garrantzia erakustea da atal honen asmoa. Gizarte nazionalaren xedeak gizartearen integrazioaren eta parte-hartzearen etengabeko bultzada eskatzen du. Bigarren dimentsioa politikoa da.

Aipatu gizarte nazionalaren interes kolektiboa definitzea eskatzen du eta interes horren inguruko ikuspuntu ezberdinak bideratzea bilatzen du, gero eta irekiagoak diren gobernantza eta prozedura politikoen bidez, gizarte-taldeei eta herritarrei parte-hartze eta kontrol politikorako aukera gehiago eskainiz. Hirugarrena kulturala da. Arlo horretan, mobilizazioak nortasun kolektiboa, kultura eta hizkuntza babestea, helburu hegemonikorik gabe, eta herritarren kultura morala finkatzea nahi du, gaur egungo euskal gizartearen izaera irekiaren esparruan horiek osatzen dituzten gizabidezko balioak indartuz. Azken dimentsioa ekonomikoa izan daiteke, sustraitutako ehun ekonomikoa sustatzeko eta lehiakortasuna mantentzeko asmoa du, erabakitzeko gaitasuna kaltetu gabe.

(96) Hamaikabaten ustez, euskal abertzaletasunak herrialdearen eraldaketa demokratikoa sustatzeko jarrera onena du, parte-hartze politikoa bermatuko duten erakunde berrien bidez administrazio publikoa eta gizartea integratzeko, elkartegaitasuna indartzeko, kapital soziala sortzeko eta, sozialaren eta publikoaren arteko elkarlanerako mekanismoak ezarriz, garapenaren arazoak eta guztion interesekoak eta guztionak diren arazoak konpontzeko.

### **5.3. Parte-hartzearen aldeko apustuak alderdi irekia behar du.**

(97) Alderdien etengabeko oligarkizazioak gizartearen aurrean horiek ixtea eragiten du, barne-dinamika kultura zorrotz eta diziplinazko kulturaren oinarritzen den bitartean. Horren ondorioz, alderdiko kideen, agintarien eta militanteen kultura politikoa, berehalako pulstu sozialetik gero eta urrunago agertzen da eta urrutiratze horrek, azkenean, erakunde publikoei eragiten die. Hori horrela bada ere, alderdiak erakunde publikoetan herritarren borondatea osatzeko prozesuan eragile nagusiak izaten jarraitzen dute. Horien funtzionamendu irekia eta demokratikoa, beraz, erabakigarria da herritarren borondatea bide demokratiko zuzen baten bidez osatu eta bidera dadin.

(98) Horregatik guztiagatik, Hamaikabatek aurreko paragrafoak aditzera ematen duen konpromiso horrek gure ideien definizioan maila gorena duela uste du. Gure alderdiak, barnean izan ditzakeen desadostasunen adierazpen plurala babesteko ahaleginak egingo ditu eta bere esku dagoen guztia egingo du gizarte osoarentzat gardentasunaren, tolerantziaren eta parte-hartzearen eredu izateko. Halaber, aniztasuna eta alderdiaren barneko era demokratikoak, joko demokratikotik at lan

egiten duten eta medatizaziorako gaitasuna duten eragile anitzen eraginetik babestuko ditugun aktiboak izango dira.

(99) Gure antolatzeko ereduak, ondorioz, izaera ideologikoa izango du. Eta tokiko autonomia babestuko duen eredia izango da, eztabaida askea sustatuko duena, atxikimendu eta militantzia ulertzeko era berrietara irekia egongo dena eta gizartearekiko gardentasuna eta sarrera bilatuko ditu. Hamaikabat, azkenik, alderdi modernoa eta berritzailea izango da, gaur egungo gizartean nagusi diren komunikazio eta elkarreragin era berriak ezarriko dituena.

#### **5.4. Politika instituzionala**

(100) Gizartearen eta erakundeen arteko distantzia handiagotzen ari dela nabarmendu dugu. Gainera, gizartearen eta interes kolektiboen ordezkaritza bere esku dagoen erakundeen arteko inbrikatze solido eta indartsu batek interes horiek burutzeko aukera gehiago eta hobeak ekar ditzakeela balioetsi dugu. Hamaikabatek, joera horretaz arduratzen den alderdi gisa, sakontasun demokratikoa lortzeko sistemaren sendotasunetik eragingo duen eta erakundeen eta gizartearen arteko hurbilketarako baldintza onenak sortuko dituen erakunde mailako lana egin nahi du.

(101). Gizartearen eta erakundeen artean ondorengo funtsezko ideiak oinarri izango dituen harremana ezartzeko politika instituzionala defendatzen dugu: gardentasuna, parte-hartze eraginkorra, kontrol politikoa eta barne hartzea. Demokrazia hobetzeko zutabe gisa balio horiek merezi duten onarpenetik haratago, erakundeen betebeharra da baztertuta daudenentzat edo aukerarik edo nahikoa bizigarri ez dutelako parte hartzen ez dutenentzat bitartekoak eman eta bideak irekitzea.

(102). Euskal sistema instituzionala goru-sustraiak dituen sistema federala da. Erakunde nazionalaren, Eusko Jaurlaritzaren, gailentasuna ikusgarri bazaigu ere, sistema hori botere zentral bakarra osatzea ekiditeko esfortzuaren adierazpena da eta autonomiaren ideiak eta partekatutako gobernua konbinatzen dituen axioma federalari erantzuten dio. Gobernuaren izaera partekatu hori finantza publikoen zehaztapenaren alorrean ikus daiteke, Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua, Euskal Administrazioaren hiru mailek, nazionalak, foralak eta udalerrietakoek parte hartzen duten organoa.

(103). Sistemak erabakiak hartzea are konplexuago bihurtzen duten tirabirak eta elkarreraginak sor ditzake. Hala ere, Lurralde-administrazioaren hiru dimentsioek botere publikoaren dispertsioan elkarlanean dira eta, horrela, botere publikoaren kontrolaren aukerak hobe banatzen dituzte, herritarrek adierazteko aukera gehiago izateko. Administrazio ezberdinen gobernuen titulartasuna anitza denean, orain gertatzen den moduan, sistemak zeharkako kultura politikoa beharko du, partekatutako helburuak lortzeko itunetan eta akordioetan oinarrituko dena. Etapa berri honen emaitza desiragarria inplikaturako erakundeen artean adostutako elkarlana eta horri dagozkion erantzukizun eta betebeharren onarpena nagusi izatea izango litzateke.

(104). Sortu zirenetik ia hiru hamarkada pasa direnean, euskal sistema instituzionala gaur egungo eskaerei dagokienez, bere egokitzapenaren inguruan (Estatutua eta LHL) errebisioa egitea egokia da, beste motatako arazoak aztertzeaz gain, zerbitzu bikoiztuen saihespena izan, eraginkortasunik ezaren edo modu burokratikoaren deuseztatzea izan, edo zenbait maila administratibo berriz dimentsionatzea izan. Hala ere, hausnarketa hori herritarrek politika publikoaren kontrolean parte hartzeko sistemak eskaintzen dituen aukerak kaltetu ordez, horiek areagotzeko zuzendu beharko litzateke. Eta, nahiz eta gauza batzuk izaera zabalagoa duten eremu instituzionaletatik hobe konpontzen diren, parte-hartzea hobe sustatzen da txikiaren eremutik.

(105). Hamaikabatentzat, txikiena, udalerrria, da hain zuzen ere sistemako mailarik ahulena. Gaur arte, Udaletxeek euskal finantza eta fiskalitatearen partekatutako organoetan parte hartzeko baztertuak egon dira. Bestalde, udalerriek euskal erregimen lokalaren estatus legalaren erabakitasun ezaren arazoa dute oraindik, eta horrek kasu askotan, besteren, autonomien eta aldundien eskumenen “saski-naski” gisa hartzea eragin du. Eta, zalantzazko eta zehaztugabeko egoera horrez gain, eremu lokala da ezinbestean gastu publikoan dagoena eta horrek udaletxe askori sendotasun eta autonomia arazoak sortzen dizkio. Hamaikabaten ustez, beraz, beharrezkoa da erakundeen arteko koordinaziorako organoetan udaletxeen boterea txertatzea eta premiazkotzat jotzen du euskal Udal legearen onspena.

## 6. 4. Eginkizuna: Gizarte Hitzarmen Berria

(106) Azken hamarkada hauetan ongizate egoerak jasan duen beherakadak elkartasun-baliabideak lermatu ditu, baita horien balioa ere sistemaren mekanismo

legitimatzailean. Interesak zatitu egin dira, arriskuak biderkatu eta ongizatearen ideiarengatik adostasuna lortzea gero eta zailagoa da indibidualizazioa gero eta nabarmenagoa den garai honetan.

(107) Sozialdemokrazia berriak benetako desberdintasunak agerian utziko dituen eta horiei konponbidea emango dien ongizate egoera legitimotzat hartu behar du eta kohesio sozialaren alde borrokatu.

(108) Helburu sozialdemokratikoak gaur egungo testuinguruan kokatu behar dira, aldaketa sozial azkarrak eta integrazio ekonomiko globalak gure erreferentzia-markoak eraldatzen ari diren garai honetan. Baina argi utzi behar da arriskuak ez direla indibidualak, herritarrok partekatzen ditugunak baizik.

(109) Justizia sozialaren helburuak ezin du aurrera egin elkartasunaren kontzeptu berri batekin ez bada, gizarte-hitzarmen berri batekin, herritartasunaren ideia berriz definituko duen lotura berri batekin, pertsonen arteko elkartasun-loturak sendotzen lagunduko duen harreman berri batekin ez bada. Ongizatearen egoeraren oinarri izan behar du, elkartasunaren ohiko definizioaren alloan, gizarteak mesede gehien egiten dieten pertsonetatik mesede gutxien jasotzen dutenei diru-sarreraren transferentzian tolerantzia izatea esan nahi duena.

(110) Sozialdemokrazia berri batek hitzarmen berriaren lantze-prozesuan lan egin behar du, pertsonen beharrezko banakako erantzukizuna bilatuz, beste herrikideekiko betebeharrak morala, guztion ongizatearen bila.

(111) Beraz, gure helburua erronka berriekin bat datorren ongizate egoera izan behar da: herritarren benetako parte-hartze zabala izango dituzten gobernantza-egiturak landuz eta aldaketen garai honetan justizia soziala bermatuko duten gune berriak irekiko dituen politika-markoak sortuz.

## **7. ETAre indarkeria politikoa**

(112) ETAk euskal politikan etengabeko presioa eragiten du. Benetako eragilea da, bere ekintza terroristagatik eta besteok bere protagonismoa saihesteko erakusten dugun ezintasunagatik. Errealitate hori ez dugu gogoko, asaldatzen gaitu, eta terrorismoa gailentzeko eta bitartean eragingo dituen kalteak gure herriko bizitza demokratikoa era nabarmenean ez baldintzatzeko nahi sendoa eragiten digu.

(113) Terrorismoa, gaur egun, Euskadiko eta Estatuko agenda politikoen lehen planoan dago. Gobernu guztiek, alderdi guztiek, bakea eta terrorismoaren amaiera lehentasuntzat jo dute beren gobernuen ekintzen barnean. Horiek guztiek hainbat borroka edota konpontze-estrategiak proposatu dituzte. Eta guztiek porrot egin dute. Eta guztiek porrot egin dute herritarren eta euskal erakundeen benetako inplikazioa gutxietsi dutelako. Gainera, ETAREN edozein lotura-aukera edo deslegitimaziori bermeeikin aurre egiterakoan helburuen ezagutza egokiak eta arrazionaltasun iraultzaileak duen garrantzia gutxietsi dutelako ere egin dute porrot.

(114) Hamaikabatek behin eta berriz azaldu du ETA euskal herriaren eta bere erakundeen etsai nagusia dela. Bere helburuei dagokienez, sarritan, euskal itxura nazionalaren atzean, bere proiektu ideologikoak izaera totalitarioa duen sozialismoa defendatzen duela ahazten da sarritan, gure alderdiak guztiz errefusatzen duen izaera. Eta proiektu hau eraikitzeke Euskadi hondar-zelaia ('borroka iraultzailean gune erabakigarria') bihurtu nahi du eta horretara zuzentzen ditu bere borrokarako bitarteko guztiak, bere eskura dauden borroka bitarteko guztiak, beldurra eta izua sorrarazteko ekintza mota guztietatik hasi eta aldi behingo aldi baterako su-etenak arte. Zentzu honetan, euskal estatuaren eta independentziaren aldarrikapenak duen helburu nagusia, boterea lortzearena alegia, lortzeko tresnak besterik ez dira. Hori kontuan izatea behar-beharrezkoa da guk errefusatzen dugun proiektu hori babestu edo zilegitzat hartzen dutenekin ekintza estrategiko partekatua egitearen baliagarritasun demokratikoa eta koherentzia ideologikoa baloratzerakoan.

(115) Hamaikabatek terrorismo mota guztien aurkako borroka demokratikoak orden publikoko eskaera berehalakoa eta ukazina esan nahi du. ETAK pertsonak biltzeko eta kokapena aurkitzeko duen gaitasuna ahultzea, gertatzen ari den moduan, zentzu horretan, arrakasta demokratikoa da. Hala ere, ETARI aurre egiteko ekintza politikoa ezin da erantzunaren tentazioan erori, errukirik gabeko erantzunean, berehalako emaitzak lortze aldera, ENAMAREN periferia ideologikoa erakunde terroristaren ekintza kriminalekin identifikatzen baita. Era horretako erantzunaren arriskua litzateke, aurkako berrarmatzea, etengabe eta gorantz azkartzen doan antagonismoen espirala.

(116) Demokrazia suntsitu nahi dutenen aurrean demokrazia bera blindatzea ideia okerra eta arriskutsua da. Ezinezkoa da sistema demokratikoa blindatzea, demokrazia horrek berak herritar guztien eskubideekin dituen konpromisoak murriztu gabe. Ekintza-erantzunaren espiral hori desmuntatzeko herritarren inplikazio jendetsua bilatzen duen beste ekintza-lerro bati ekitea ez da erantzun ahula, sistema demokratikoaren osotasuna babesteko erantzun egokiena, indartsuena baizik.

(117) Izan ere, ETA, sozialki ingurune sustraitua duen indarkeriazko taldea da, politikoki adierazmen handia duena, sektore periferikoak nagusiki bitarteko bakezaleen bidez horien inplikazioa adieraztea bilatzen duena, eta azken urteotan nahiko egonkor mantendu dena. Jazoera horren lehen irakurketak, sistema politikoa eta kuantitatiboki talde esanguratsua denaren artean oraindik haustura larria dagoela erakusten digu eta horien hauteskunde-lehentasunen legez kanporatzeak haustura hori areagotu dezake. Bigarren irakurketak, hala ere, terrorismoan politika modu bat aitortzea eta ETAk izua eta politika, bi gauza horiek konbinatzeko duen trebetasuna onartzea eragingo luke, beraz, azken horrek aipatu sektoreak ekintza terroristak epaitzeko justifikazioaren, ulergarritasunaren eta tolerantziaren barnean sartuko lirateke.

(118) Lehen irakurketari jarraituz, terrorismoaren aurkako borrokan, pizgarri demokratikoa duten ekimenak beharrezkoak direla ulertzen da, euskal herritarrek politikan duten integraziorako eta parte hartzeko aukerak etengabe haz daitezten. Bigarren irakurketatik, terrorismoa politika modu gisa gizarte-zilegitasuna kentzearen beharra uler daiteke. Bi lan horiek dira “herritarren inplikazio jendetsua” izendatu dugunaren bi alderdiak.

(119) Une honetan indarrean dauden eredu antiterroristaren jokabideak, ekintza polizial eta judizial hutsean irmotzen dira, terrorismoaren aurka beligeranteak ez direnak mugitzen diren guneak murriztea bilatuz. Hala ere, jokabide horren aldekoek, gizarte-zilegitasuna kentzeaz ari badira ere, ez dute ulertzen borroka mota horren helburua ETArri babes soziala murriztea izan behar duela, ETAREN helduleku sozialak moztu, eta ez espazioak murriztea (orain dela gutxi ikusi dugun bezala, neurririk gabe jende asko biltzen den gertakizun kultural eta festetan sartuz) batzuetan instituzioen jarrera higitzeko, ENAMaren biktimismoa eta gatazka berrarmatzeko besterik ez baitu balio.

(120) ETAREN amaiera epe ertain-luzerako prozesuaren ondorio izango da, euskal politika demokratikoaren garapen propioak idatziko duena. Beraz, euskal prozesua izango da, euskal protagonistak izango dituena. Euskal gizartea eta bere erakundeak protagonista nagusienetakoak izango dira prozesu horretan, euskaldunen eta horien ordezkarien artean sortzen diren lan-gidoiekin, hemen baita, euskal jaurlaritza eta legebiltzarraren barnean gure herriaren interes kolektiboa benetakoago bilakatzen den lekua.

(121) Hamaikabatek, edonola ere, ETAREN amaiera ziurtzat jo dezake integrazio sozialerako energia kantitate handia eskaintzen zaion agertokian, jada beren lotura frentistek ezaugarritzeari utziko dieten proiektu politikoen agertokian, eztabaida politikoak herritarren estimazioa berreskuratzen duenean, konprometitutako herritarrek parte-hartzea areagotzeko parte-hartze politikorako aukera zabalak daudenean eta erakundeen lidergoak gizartean etorkizuneko eraldaketa politikoei, sozialei eta ekonomikoei ekiteko garaian konfiantza sortzen duenean. Hori da bake politikoa lortzeko bide nagusia. Arazo horiei arreta pixka bat eskainiko balitzaie, propaganda-izaerako kanpainei eskaintzen zaizkien argitasun-, denbora- eta baliabide-kopuru itzelak baino gehiago eskuratuko genuke, kanpaina horiek une gorena izan ostean ezerezean geratzen baitira.

(122) Gaur egun, ezinbestekotzat jotzen dugu irismen luzerako hausnarketa sozial eta politikoa, euskal herriaren borondate demokratikoaren gailentasunaren sinesgarritasuna, indarkeriaren espiralaren aurrean, berreskuratzeko asmoz, terrorismoaren aurkako euskal ekintzan batasuna berreskuratzeko erraztasunak bilatzeko asmoz eta terrorismoari erantzutean presazko dinamiketarik ateratzeko asmoz. Ez dago bidezidorririk ETAREN aurka.

(123) Hori oinarri izanik, gure herrian terrorismoaren amaiera eraginkorra lortzeko estrategia dibertsifikatua azaldu beharko litzateke. Estrategia horrek hainbat lan-lerro era kateatuan konbinatuko lituzke:

1. Lehenbizi, ekintza politiko eta instituzionalaren batasuna bilatzea Euskadin.
2. Ekintza-batasun hori gabe ezinezkoa dirudi, burutu beharreko bigarren lan gisa, *herritarren inplikazio jendetsua* eta horrek sozialki zilegitasuna

kentzea eta parte-hartze politikoaren pizgarria lortzeko esfortzua izango lituzke.

3. Bereziki balio handiko parte-hartzea ETari erantzun demokratikoa emateko, hirugarren lerro estrategikoa, terrorismoaren aurkako borrokan gure erakundeek, giza eskubideen errespetuarekin, beren esku dituzten baliabide guztiak erabili beharko dituen.
4. Eraginkortasun zehatzena izan behar duen krimen politikoaren aurkako borroka eta hori, laugarren puntu bezala, erabakitzeko eskubiderako *prozesu demokratiko irekiaren* babesean, autogobernurako gure ahalmenen garapen etengabearen testuinguruan.
5. Terrorismoaren aurkako burrukan, eraginkortasuna marku demokratikoa sakontzearen bidean oinarrituta etorriko dela beti ahaztu gabe, konforme ez daudenak integratzeko ahalmena erakutsiko duen prozesu demokratikoan oinarrituta.